

## HONDARRIBIKO HILARRI BIRIBILA

Hilari biribilak Euskal herrian antzina herbestetik etorriak edo ekarriak baziren ere, bertaratzeaz gainera, berei loturik hiletan eta ohizko arte apaingarrien euskarri izan dira. Lehen aldiz horiei erantsirik agertzen zaizkigun marrazki irudiak, geroago etxeen aintzinean edo haltzarietan nabari dira. Hilariok sinbolojia oparoa eskaintzen digute, irudi ezagunetatik gaur egun ezagutzen ez direnetara, abstrazioa barne. Louis Colasen *La Tombe Basque* katalogoa lekuko.

Baina, oroi etruskoen artean bazirela antzerako hilariak, ez ordea irudiak, Frankowski adierazi zigunez, eta gurean badirudi lehen aztarnak Burdin-aroarekin datozela; Duero ibarreko Cluniarekin bateratsu agertuak, hara nola, Bizkaiko Meñakakoa eta Nafarroako Arazuri eta Santakarakoak.

Hilari biribil horietarik askoz gehiago dira Nafarroan eta oraindik askoz ere gehiago mugazandiko Euskal Herrian, aspalditikako zatiketaren ondorioz. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Gaztelako errege koroaren menpeko biltzearen ondotik. Foruei itsatsi zitzaion errege Erdriko IV.aren denboran euskaldunok unibertsalki aitonen- seme onartzea eta horrek bedorrekin zekarren eliza barnean hobiratzeko eskubidea, orduarte ipiztiku eta handikientzat soilik gordetzen zen ahalmena edo eskubidea. Geroztik hilari materialik aski galdu da hiru eskualdeotan, mai zenik harriak beste zerbaitearako erabiliz. Horren lekuko dugu hemen aipatuko dudan Hondarribikoa ere.

Anfonso VIII.ak Gipuzkoarekin batean hartu zuen Nafarroako Oiarso parte, Bidasoaz gora itsas-marea iristen zenera arte, 1200. urtean Beagoagako dorreaz jabetu zenean.

Nafarroan zein mugazandiko Euskal Herrian


jarraitu zuten eliza inguruko hilerrian hobiratzen, gorpuaren burualdean hilari biribila jarri. Gero urteetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bi-deetan hiltzen zirenen orogarriz jarriak bakarrik ezagutuko ziren. Horren berri ematen nuen Landuz (1983) liburuaren 130-138. orrialdeetan. Eta, lehenengo hilarien orde argizaiola sortzen da eliza barruko hobia elizkizunetarako jarri.

Beharrezkoa deritzat hilari biribilen no noiztikakoa den aipatzea, gaurko Euskal herriko komunitatea autonomoan gutiago izate hori noiztik eta zergatik den teoria adierazteko. aspalditik datorzkigun bereizkuntzak ulert ditzagun. Historian zehar gure geografian izan diren estatus politikoek zertara ekarri gaituenaren adibide. Gainera, berezki, hori gabe ez bait da erraza Hondarribian noiztikakoa den Gipuzkoari loturikako jokabidea, lehendik Nafarroakoa izanik.

Baina, noan zuzen hilari biribil horren zertzeladak zuzenki ematera.

1983aren hondarretan zen, Hondarribiara bizitzera etorri eta laster, emaztea hartu zen eliza inguruko horma batean hilari biribila izan zitekeen gurutzadun harri batetan eta toki hartara eraman ninduen.

Lehendik Eliza-atzia bezala ezagutzen den tokian, duela urte guti Apezetxe Jardina egokitzeke eraiki ziren hormak egiteko, han bertan eta inguruan bildu zituzten hondar-harrien artean, landurikoak eta landu gabeak, baina ekintza hartarako zerbait hautsirik jarri zutenetako bat hilari biribil horietakoa zen. Horman agiri denezik, 48 zentimetroko diametroa zuela esan daiteke. Materialez Hondar-harria, pareteko guziak bezala. Gainera, adinako zatia falta zaio eskubi aldetik, leporik ez du eta ez eta ere lurrean kokatzeko hankarik ere. Bere berri eman nuen «Estela discoidea en Hondarribia» izenburuz



Luis de Urantz Kultur Taldearen Bidasoa Ikasketzen Aldizkarian (Nº 2, 1985. urtea, 39-43. orrialdeetan). Irun, Bera eta inguruetako ez zenbait berriren oharrak gaineratuz.

Hilariak, ageri duen aldean, gurutzea du, muturrak hiru hostoren gisa bukatuz baina kanpokaldera punta zorrotzez, ojiba konopial erara. Hortik antz ematen zaio beranduko gotikoa dela, XV. menderaren azkenetakoa edo XVI. arene lehen partekoa, eta gurpil egiten duena epaiki edo serra ahozko marrazki honiduraz inguratuturik.

Elizaren hegoaldean, hor bertan omen zen ipiztiku zeritzan hilerria, «Zimenterio que llaman del Obispo» edo beheko hilerria, «el zimenterio de abajo», Florentino Porturen Fuenterrabia liburuaren lehen argitalpeneko (1997. urtean argitaratua) 146 eta 332. orrialdeetan irakurtzen denez.

Orain arte hau dugu hilari biribil horietarik Hondarribian agertu zaigun bakarra.

JUAN SAN MARTIN

**TXIRRINDAK - MOTOAK**  
**ARRETIE**  
SALMENTA  
ETA KONPONKETA

J. Alonso, 5  
Telf. 64 27 77  
HONDARRIBIA

**TiNko**

**erropadenda**

**HERRI GUZTIARI,  
ZORIONAK!**

Beleztarren Markesa Kalea  
Telf. 64 42 86  
HONDARRIBIA



**txantxangorri**

San Pedro kalea, 27  
Tel. 64.21.02  
HONDARRIBIA

Taberna behean,  
ohizko denda lehen pisuan